

468 zenbakia. 2001eko urriaren 11  
JARDUN ELKARTEA

• B e r g a r a k o   a s t e k a r i a

# Berrigara

**BERRI GARA**

(17, 18 eta 19. orrialdeak)

**Elosu:** egubakoitzean, XXIII. Ganadu Feria **Kirolak:** Iban Franco, Eibar B futbol taldeko golegilea

# CORSA BERRIA SRI



Zure burua auto honetan ikusi gura zenuke



**CORSA  
BERRIA  
SRI**

**1.4  
16 v  
90 zp**

Opel-ek Corsa SRI berria aurkezten dizu.

Prestazio handiko diesel motorrak:

**1.4 16v 90zp** eta SRI ekipamendu osoa **serieko ABSrekin**.

Gutxitan izango duzu horrelako aukera bat.

Pasatzen utzi behar duzu?

Orain, prezio ikusgarrian:

**1.665.000 pezeta.\*** Serieko ABSrekin.

Corsa SRI berria, baita motor hauekin ere:

1.2 16v 75zp eta dieselean 1.7 16v 65zp eta 1.7 DTI 16v 75zp.

Guztiak ere serieko ABSrekin, hiru edo bost aterekin.

Diesela 1.7 DI 16v 65zp: **1.735.000 pezeta.\*\***

[www.opel.es](http://www.opel.es) **OPEL CREDIT**

Opcionak  
**1-2-3**

1, 2, 3 aukerak: beti auto berria izateko aukera errazena.

\* 10.007 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.4 16v 90zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plana barne.  
\*\* 10.427 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.7DI 16v 65zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plana barne.  
Ikusten diren haguak eta lainotako faroak aukerakoak dira.

**OPEL**

**TALLERES  
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA  
Zerbitzu Ofiziala

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Ertobidea. Tfnoak. 943 77 30 10.  
ARRASATE

# Orain arte 'plisti-plasta' gerora 'kaliangora kalianbera'



IÑAKI ARTOLA

Uztailaren 31n Agorrosingo igerilekuak 30 urte bete ditu. Gipuzkoako lehen igerileku estalia izan zen geurea, gauza handia zen orduan. Berehala, 1972an, askoren adorea tarteko, sortu zen Bergara Igeri Elkartea. Herrian dagoen kirol talde zaharrenetakoa da eta tinko iraun du orain arte. Ehunka dira talde honetan umetan edo gaztetan aritu izan diren bergararrak. Hauetako batzuk, gainera, goi mailako kirolariekin lehia izan dira, eta hainbatetan oso goian laga dute taldearen eta herriaren izena. Gipuzkoa eta Euskal Herri mailako kirol honen antolakuntzan ere, Bergarako taldeak zeresan eta eragin nabarmena izan du urte hauetan guztietan. Izan ere, kirol honen atzean beti egon izan baita zuzendaritza saiatu eta iraunkorra.

Igeriketa ez ezik, beste bi kirol ere garatu dira Agorrosingo igerileku zahar hauen inguruan: waterpoloa batetik eta piraguismoa bestetik. Bi hauen kasuan, argi dago kirolerako eskaini zaizkien

baldintzak ez direla izan, ez, oso ego-kiak. Halere, hor ditugu gaur egun Beti-Busti taldeko hainbat piraguista Estatuko txapelketetan goi-mailan ari direla.

Orain, Agorrosin berri-tzeko ordua iritsi da. Normala da! Nork ukatuko du horren beharra? Urteak pasatu dira eta gauzak hobetu eta eguneratu behar izaten dira. Baina hara! Kirol talde hauetako arduradunak ez omen daude batere ados Udalak igerigune berrirako aurkeztutako proposamenarekin. Hau ere normala; nola ez ba! Hainbeste urte egoera zaharkitua eta desegokia jasan ondoren, pentsatzekoa zen azpiegitura berriek ekarriko zutela kirola baldintza ego-

kietan egiteko aukera. Bai zera! Aurreko baldintza kaskarrak mantendu ere ez dira egiten proiektu berrian; nabarmen atzera egiten da, kirolaren ikuspegitik bederen. Zer da hau mesedez!

Are gehiago, Udalak ba al du erantzun presturik kirol hauen inguruan gaur egun dabiltzan 40-50 gaztetxoentzat? Edo hauei ere, beste hainbati bezala Bergaran, "kaliangora-kalianbera" ibiltzea tokatzen zaie? Bitartean, gurasook joango gara, Udalak arrakasta handiz antolatzen dituen droga mendekotasuna edota nerabezaroari buruzko mintegi-hitzaldietara. Bertan adituek esango digute zein garrantzitsua eta osasuntsua den kirola egitea adin hauetan.<

«Aurreko baldintza kaskarrak mantendu ere ez dira egiten igerilekuen proiektu berrian; nabarmen atzera egiten da, kirolaren ikuspegitik bederen. Zer da hau mesedez!»



**ARANTZAZU LOIDI**  
Prebentziorako Udal teknikaria

«Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa piztu dezake zinea ardatz duen programak» **6.**



**IRUNE IGARTUA**  
Elosuko Elurtxiki elkartetua

«Elosuko Ferixako gauzarik onena girua da. Txarrena, eguraldixaren menpe egon biharra» **13.**



**IBAN FRANCO**  
Eibar B taldeko jokalaria

«Progresatzeko aukerarik ez badaukat, taldez aldatzeko aukera aztertuko nuke ekainean» **21.**

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



## BEKAK

**Elkarlana.** Eusko Jaurilaritza. Arlo honetan espezializatze eta profesionalak prestatzeko 6 beka. Epea: Urriak 30.  
**Surfa.** Urola Kostako Udal Elkarte. Surfari buruzko fitxak sortzeko beka bat. Epea: Urriak 26.  
**Imebisa.** Eusko Jaurilaritza. Garraioak ikertzeko bi beka. Epea: Urriak 31.

## IKASTAROA

**Ikastaroak.** Debagoieneko Mankomunitatea. "Enpresa ideia eta autoenplegua". "Emakumeak eta autoenplegua". 70 ordu. Epea: urriak 22.  
**Ingurugiroa.** EAEko zenbait elkarte. Masterrak eta ikastaroak. Zenbait epe.  
**Begiralea.** Larrunari elkarte. Astialdiko begirale ikastaroa. Epea: Urriak 26.

## SARIAK

**Bideoa.** Leioako VIII. Bideo Lehiaketa. Gai libreko lanak. Epea: Azaroak 9.

## LANA

**Zenbait lan eskaintza.** Urola Kosta Mankomunitatea. Epea: Urriak 22.  
*-Ingurugiro teknikaria.* Saiakuntza zientzietan eta osasun zientzietan lizentziatuak. Euskarako HE 4.  
*-Formazio eta enplegu teknikaria.* Pedagogian, Psikologian edo Filosofian lizentziatuak. Euskarako HE 4.  
*-Administrari laguntzailea.* Eskola graduatua edo baliokiidea. Euskarako HE 3.  
**3 Udaltzain.** Bergarako Udala. Eskakizun fisikoak, A eta BTP gidabaimenak, eta 18 eta 30 urte bitartekoak. Epea: Urriak 18.  
**Idazkari kontularia.** Asteasuko Udala. Lizentziaturako hiru urte gaindituta izatea: zuzenbidean, ekonomia eta enpresa zientzietan, politika zientzietan edo soziologian. Euskarako HE 4. Epea: Urriak 18.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikaste (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ehiz nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



### Zilbota

Pertsonek tripa handia.  
 - Obispuan lakotxe zilbota dauka.

## hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
<b>Urriak 4, eguena</b>	26 °C	10 °C	- 1/m <sup>2</sup>
<b>Urriak 5, egubakoitza</b>	25 °C	12 °C	- 1/m <sup>2</sup>
<b>Urriak 6, zapatua</b>	21 °C	16 °C	- 1/m <sup>2</sup>
<b>Urriak 7, domeka</b>	23 °C	10 °C	8,2 1/m <sup>2</sup>
<b>Urriak 8, astelehena</b>	24 °C	12 °C	- 1/m <sup>2</sup>
<b>Urriak 9, martitena</b>	21 °C	5 °C	- 1/m <sup>2</sup>

## mezak

**Santa Marina**  
 Domekak: 11:30, 13:00.  
 Zapatuak: 19:00.  
**San Pedro**  
 Domekak: 09:30, 12:30.  
 Zapatuak eta lanegunak: 19:00.  
**Sierbak**  
 Lanegunak: 19:30.  
**Osintxu**  
 Domekak: 11:30.  
 Zapatuak: 19:00.  
**Elosu**  
 Domekak: 10:30.  
**Ubera**  
 Domekak: 10:30.  
**San Juan**  
 Domekak: 11:00.  
**San Prudentzio**  
 Domekak: 10:30.

## URTE-MEZAK

**Santa Marina**  
 Hileko 2. astean, domekan 11:30:ean.  
**San Pedro**  
 Hileko 3. astean, domekan 12:30:ean.

## urbanoa

**San Lorenzo/San Jandik irteerak**  
 07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
 GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero (M2 errotuloak), San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.  
**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**  
 07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
 GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

**EGUENA 11:**  
 GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05  
**EGUAKITZA 12:**  
 ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63  
**ZAPATUA 13:**  
 MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15  
**DOMEKA 14:**  
 MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15  
**ASTELEHENA 15:**  
 CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74  
**MARTITZENA 16:**  
 PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87  
**EGUAZTENA 17:**  
 GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05  
**EGUENA 18:**  
 ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

### OGIA

EGUBAKOITZA 12 ..... Mizpildi  
 DOMEKA 14. .... Ogizun

### TELEFONOAK

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
 Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40  
 Bergarako udaltzaingoa. .... 943 77 91 06  
 Antzuolako udaltzaingoa. .... 943 76 62 46  
 Ertzaintza. .... 943 76 53 40  
 Osasun Etxea. .... 943 76 24 40  
 Asepeyo. .... 943 76 16 43  
 Pakea. .... 943 76 13 49  
 Angiozarko medikua. .... 943 78 90 27  
 Antzuolako medikua. .... 943 76 62 23  
 Odol emaleak. .... 943 76 16 24  
 Alkoholiko anonimoak. .... 943 76 51 06  
**GARRAIOAK**  
 Taxiak. .... 943 76 19 50  
**UDALA**  
 Bergarako udaletxea. .... 943 77 91 00  
 Antzuolako udaletxea. .... 943 76 62 46  
 Udal Artxiboa. .... 943 77 91 32  
 Igerilekuak. .... 943 76 20 51  
 Kultur Etxea. .... 943 77 91 58  
 Liburutegia. .... 943 77 91 62  
 Kirolegia. .... 943 76 56 41  
 Mizpirualde Egoitza. .... 943 76 13 68  
**BESTELAKOAK**  
 Epaitegia. .... 943 76 14 92  
 Erregistroa. .... 943 76 13 15  
 Jardun. .... 943 76 36 61  
 Idolaz. .... 943 76 65 08  
 Jubilatuen Etxea. Bergara. .... 943 76 21 40  
 Antzuolako jubilatuen elk. .... 943 76 62 71  
 Postetxea. .... 943 76 26 85  
 Bedelkar. .... 943 76 04 68  
 Akulu AEK. .... 943 76 05 18  
 Udal euskaltegia. .... 943 76 44 53  
 Bergarako notaritza. .... 943 76 10 73

**oharrak**

■ **1925ean jaiotako**en **bazkaria** urriaren 21ean Erreki jatetxean. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Errekin bertan urriaren 19ra arte.

■ **1975-76 ikasturtean** Bergarako Institutuan UBIn elkarrekin ibilitako en afaria urriaren 27an Txuringo jatetxean. Izena emateko epea (depositoa, 2.000 pta.) Kafe tabernan urriaren 18ra arte zabalik.

■ **1947an jaiotako en afaria** urriaren 27an Tartufo jatetxean, 21:00etan. Joan etorrirako autobusa egongo da. Autobusa 20:30ean aterako da Santa Marinatik. Izena ematea (6.800 pezeta) Euskadiko Kutxan urriaren 20ra arte zabalik.

■ **1933an jaiotako en bazkaria** urriaren 28an Torrekua erretegian. Aurretik, 13:00etan, Santa Marinaran meza izango da. Izena ematea (1.000 pezetako depositoa) Intxorta tabernan edo Torrekua erretegian.

■ **1944an jaiotako en afaria** azaroaren 24an Azpeixti jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza Santa Marinaran, 19:00etan. Izena emateko epea azaroaren 19ra arte zabalik Sanchez ileapaindegian (943 76 23 70) edo 943 76 42 08 zenbakian (Arantza Alberdi).

■ **Aritzeta abesbatzak** irailaren 29an egindako zozketa 86.472 zenbakia izan da saritua. Boletorean jabeak Fiteroko

bainuetxean bi pertsonendako astebukaera bat irabazi du.

■ **Odol ateraldia** eguaztenez, urriak 17, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

■ **Zeramikaren** hastapenei buruzko ikastaroa ekaina bitartean Zabalotegin. Lau ordu astean. Izena ematea (5.500 pezeta hileko) eta argibideak 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefono zenbakietan.

■ **Beart** elkarteak margo ikastaroa (olioa eta akrilikoa) antolatuta du. Rikardo Azkargorta izango da irakaslea. Izena ematea 656 72 44 49 zenbakian.

■ **Bedelkarrek** antolatuta, Musika Eskolako trikitilariak kaleak alaituko dituzte datorren egubakoitzean, hilak 19, 18:30etik 20:30era.

**jardunen agenda**

■ **Astebukaeretakoa aisialdia** kartzela zaharrean, 4., 5. edo 6. mailako gaztetxoentzat. Urriaren 12an, 13an eta 14an zabalik egongo da. Bertan hainbat jolas egingo ditugu. Karneta egiteko: 2 argazki eta 3.600 pta ekarri.

■ **DBH 1 eta DBH 2-ko** gaztetxoentzat: urriaren 27an Gasteizera patinatzeraz goaz. Gurekin etortzea nahi baduzue, animatu eta Jardunetik pasa urriaren 20a baino lehen.

**zorionak!**



**Aitor sansiñena**  
14an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta aitona-amonak.



**Kepa Sansiñena**  
18an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta aitona-amonak.



**Kiko**  
14an 33 urte.  
Urte askotarako!  
Maialen eta Jon Ander.



**Miren Murgizu**  
13an urtebete.  
Urte askotarako!  
Familiakoak eta Alazne.



**Itsaso Arantzabal**  
18an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak eta lagunak.



**Arritxu Barruso**  
11n 19 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Josu Morras**  
18an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, Unai eta Gorka.



**Iker Murillo**  
15ean 10 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Olatz**  
**Muruamendiaraz**  
18an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aitziber Iturriaga**  
11n 2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Marina.



**Izar Larrañaga**  
17an urtebete.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Manex.



**Aritz Unamuno**  
13an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Itziar Retes**  
12an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Igoitz Retes**  
15ean 9 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Julen Markez**  
13an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Elisa, Mikel eta Gorka.

Hurrengo alean, **urriaren 19tik 25era** bitarteko en zorion agurrak argitaratuko ditugu.

**Larkano**  
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK  
Barrenkalea 15-17. BERGARA.  
Tf. 943 76 25 03

**ARDATZA**  
*Brikolajea*  
Ateak eta zokaloak  
Horma-armairuak  
Sarriailak eta heldulekuak  
Koadroak markoan ipini  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kaxoiak  
Masterreka, 4-behea  
☎ 943 76 18 93

**Jose M. Martin**  
pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialak  
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

**Sugoi**  
ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...  
Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**Mujika**  
*geologia*  
 **Berezitasunak:**  
Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak  
Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

**ATARI**  
Zure auzo elkarteko, etxebizitza eta garajeko arazoak konpontzeko gertu  
Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574  
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxa 943 76 38 41

**Zinea irakaskuntzan film bidezko drogamenpekotasunen prebentzio programa hasi da oraingo astean. DBHko laugarren mailako eta LOGSEko lehen mailako gurasoei zuzenduta dago. Eta gurasoek gai horren gainean hausnartzeko esparrua izan nahi du, besteak beste.**

**G.** Zer da Zinea irakaskuntzari?

**E.** Drogamenpekotasunen prebentzioa lantzeko oso programa konkretua. Eta izen hori du zinemako filmak erabiltzen direlako hainbat gai lantzeko.

**G.** Zelan gauzatzen da programa?

**E.** Eskoletan drogamenpekotasunen prebentziorako hainbat programa lantzen dira, betiere ikasleen adina kontuan hartuta. Zinea irakaskuntzan programa DBHko laugarren mailari eta LOGSEko lehen mailari zuzenduta dago.

Ikasle horiek gai jakina duten filmak ikusten dituzte. Ikusi ondoren, tutoretza orduetan edo etika orduetan, filmean agertutako gaiak lantzen dituzte unitate didaktiko batzuen laguntzaz. Gai horiek, normalean, lotuta egoten dira drogamenpekotasunen arazoan zerikusia duten faktoreekin.

**G.** Neska-mutiko horien gurasoei ere zuzenduta dago.

**E.** Bai. programa hasi zenean, 1990ean, bakarrik ikasleei zuzenduta zegoen, baina gero, programa osatzeko, erabaki genuen programa jaso zuten ikasleen gurasoei ere zuzentzea.

**G.** Zergatik?

**E.** Sarritan entzun izan diegu gurasoei, seme-alabak nerabazarora heltzen direnean, bi aldean arteko komunikazioa moztu egiten

ARANTZAZU LOIDI

Prebentziorako udal teknikaria

*«Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa piztu dezake programak»*



Arantzazu Loidi, Prebentziorako udal teknikaria.

dela. Hori gertatzen denean, gurasoak irrikan egoten dira jakiteko euren seme-alabek zein ikuspegi duten eta zelan bizi dituzten hainbat gai: aisialdia, sexualitatea, droga-kontsumoa, lagunartea... Baina zaila egiten zaie. Hori horrela, pentsatu genuen tresna egokia izango zela gurasoek ere programako filmak ikustea, ho-

**«Kontsumo mota batzuetara jotzeko filmetan zein presio dagoen aztertuko dugu, horrela, presio horiek identifikatu eta aurre egiteko»**

rrela, gurasoek eta seme-alabek film bera ikusita izanda, familian bertan el-karrizketak sortzeko.

**G.** Eta komunikazioa pizten da?

**E.** Programan parte hartu izan duten gurasoen esanetan bai. Elkarrizketa sortzeko balio izan dute filmek, eta esaten dute askotan harritu egiten direla seme-alaben iritziekin eta ikuspuntuarekin. Ez, baina, harritu zentzu negatiboan, onean baizik.

**G.** Lau film emango dituzue. Zer hartu duzue kontuan film horiek aukeratzeko?

**E.** Ez ditugu guk aukeratzten, enpresa batek baino; eta ez dakit zein irizpide erabiltzen duen. Hala ere, film berriak izaten dira, kritika ona izan dutenak, motibagarriak izan daitezten. Edukien aldetik, drogen kontsumoarekin zerikusia duten faktoreak agertzen dira filmetan: familia giroa, lagunartea, gizarte mailako egoerak... Betiere, drogamenpekotasunen prebentzioarekin zerikusia duten faktoreez berba egiten dugunean, beste arlo batzuetaz berba egitea ere beharrezkoa da: osasuna eta hezkuntza, esaterako. Drogamenpekotasunen arazoa ez da drogen inguruan itxita dagoen gauza bat, testuinguru zabala du, faktore askok parte hartzen dute.

**G.** Aurtengo programan, zer da, zehazki, landuko dena?

**E.** Aztertuko da zein presio egon daitezkeen kontsumo mota batzuetara bultzatzeko. Horrela, presio horiek identifikatu eta nola aurre egin ere landuko da.

**G.** Gurasoei begira, zer eskaintzen die programak?

**E.** Drogamenpekotasunen gainean hausnartzeko aukera, besteak beste.


## Mendiko Ganadu Feriaren XXIII. aldia, bihar, egubakoitza, Elosun

**Pilarika egunarekin bat eginik, bihar, egubakoitza, Mendiko Ganadu Feria egongo da Elosu auzoan. Goizean ganadua izango da nagusi, eta arratsaldean herri kirolak. Auto ilarak ekiditeko, egun osorako autobus zerbitzu berezia jarri dute antolatzaileek iaz bezala.**

Prest dago dagoeneko, bihar, egubakoitza, Elosun egingo duten Mendiko Ganaduarien XXIII. Feriako egitaraua. Goizeko 9:00etan hasiko da, eta bertan ganadua izango da nagusi. Horrez gain, baina, beste hainbat gauza ere egongo dira ikusteko aurtengo ferian: besteak beste, artisauak, musikariak, talogileak eta bestelako salmenta postuak.

Urtero egiten den bezala, ganadu lehiaketa egongo da eta 13:00etan banatuko dituzte sariak.

Goiz partean ganadua eta salmenta postuak feriarako ardatz nagusia izango dira, eta arratsaldean herri ki-



Goizean ganadu feria izango da nagusi, eta arratsaldean, berriz, herri kirolak

rolen jaialdiak hartuko die lekukoa. 17:00etan hasiko da jaialdia, eta aizkolariak eta harri jasotzaileak ikusteko aukera egongo da. Aizkolariak Mugertza eta Bihurri izango dira, eta harri jasotzaileak, berriz, Goenatxo II.a eta Elosukorta. Saioan egin beharko duten proba mistoa izango da: harria jasotzen, aizkoran eta tron-

tzan egingo dute taldetan banatuta. Herri kirolen saioa amaitzeko, Goenatxo II.ak eta Elosukorta ehun kiloko bolarekin erakustaldia egingo dute.

### AUTOBUS ZERBITZUA


Urtero sortzen diren auto andanak ekiditeko asmoz, antolatzaileek, Elosuko Elurtxiki elkarteko kideek,

Bergarako eta Azkoitiko udalen laguntzarekin, autobusa antolatu dute aurten ere kaletik Elosura igo eta baita jaisteko ere.

Elosurako lehenengo autobusa 10:00etan aterako da San Martin plazatik, eta jaisteko azkena 19:00etan Santutxutik. Joan-etorriko txartelak 400 pezeta balioko du.

## Basalgoko pilotalekua estali egingo dute

**Basalgoko** pilotalekua estaltzea komeni dela uste du Udalak. Udaleko iturrien esanetan, euria eginez gero pilotalekua guztiz bustitzen da, eta zaleek ezin izaten dute jokatu. Gainera, estalita egonda, zorua askoz hobeto mantentzen da. Hori guztia kontuan hartuta, Basalgoko pilotalekua estaltzeko erabakia hartu du Gobernu batzordeak. Dagoeneko pilotalekua estaltzeko proiektua nork idatziko duen ere erabaki du batzorde berak: Ignacio Ibarretxe arkitektoari esleitu diote proiektua idazteko lana 1.276.000 pezetan.



# Mayc lantegian enpresa ituna adostu egin dute

**Mayc** enpresako langileek ez dute muga gabeko greba egin. Joan den astean iragarri zutenaren arabera, astelehenean muga gabeko greba hastekoak ziren enpresako zuzendaritzarekin enpresa ituna adostu ezean. Hala ere, ados jarri dira, eta greba bertan behera utzi dute langileek.



Joan den asteko martitzen eta eguaztenean greba egin zuten langileek.

Joan den astean bi eguneko greba egin zuten enpresa ituna dela eta, baina esan bezala, adostu dute ituna. Honako akordiora iritsi dira sindikatuak eta enpresa zuzendaritza: itunak bi urteko iraupena izango du; soldatak KPI gehi puntu bat igoko dituzte aurten (%5 guztira), eta KPI gehi %0,8 datorren urtean. Lan or-

duak, bi urtean zortzi ordu jaitsiko dituzte. Erretiroen kasuan, aurten 14 langile erretiratuko dituzte, eta 5 langile berri hartu; 2002an, 250.000 ikuzgailu baino gehiago produzituz gero, 22


lagun erretiratuko dituzte errelebobakako kontratazio bidez. Gaixotasun-bajei dagokienez, lanera huts egitea %4,76ra jaisten bada, %100 kobratuko dute, eta %5,01era jaisten bada, %90.

## Autobus zerbitzu berezia zapatu gauetarako

**Foru Aldundiak** zapatu gauetarako autobus zerbitzu berezia jarri du. Gazteei zuzenduta dago, batez ere, eta autoa gutxiago erabiltzea du helburu, istripuak ekiditeko asmoz. Zerbitzu horrek Gipuzkoako herri handienak lotuko ditu. Dagoeneko martxan dago, nahiz eta bost hilabeteko froga aldiari dagokionez, Eibar eta Eskoriatza lotuko dituen autobusa egongo da. Eibarretik 00:00etatik 06:00etara bitartean aterako da, 90 minuturo. Eskoriatzatik Eibar aldeira ordutegi eta maiztasun bera izango du. Batzuk zein besteak geldituz gero, izango du Bergaran.

## San Martzialera doan bidea konponduko dute

**Udalak, San Martzial** auzora doan bidea hobetu eta zabalduko du. Proiektu teknikoaren idazketa esleitu du, dagoeneko. Eraiki SL enpresari, hain zuzen ere, 870.000 pezetan. San Martzial bidea nahiko egoera kaskarrean dago, hainbat zulo ditu, eta badu konpondu beharra. **BERRIGARAKO** erredakzioan bertan ere, hainbat auzotarren kexua jaso izan dugu San Martzialera doan errepidearen egoera kaskarra dela eta. Bidea hobetu eta konpontzeko lanak bi hilabete barru hasiko dira, seguruenik, Udaleko iturrien esanetan.



## ETXEPARE-BILINTX



**LIBURUGENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

## LoS CAZADORES taberna


943 76 48 08.  
Zubieta 26



# Turismoa bultzatzeko parte-hartzea eskatu dio Udalak sektore pribatuari

**Aurreko** urteetan baino turista gehiago izan ditugu udan bisitari. EAEn turista kopurua iazkoaren antzekoa izan da, baina Bergaran, gora egin du: 2.638 kontsulta jaso dituzte turismo bulegoan; iaz, 1.887. Hori horrela, udako denboraldiaren gaineko balorazio positiboa egin zuten udal agintariek martitzenean egindako prentsaurrekoan.

Martitzenean esan zutenez, bi faktorek eragin dute igoera: batetik, turismo bulegoa hamabost egun gehiago irekita egon izanak (irail osoa estreinakoz), eta bestetik, Udalak egin duen ekimen bereziak, hau da, hainbat elkarte eta talderekin harremanetan jarri da Ber-



Azaroan 1etik 4ra, eta abenduan, 1etik 9ra zabalduko dute turismo bulegoa.

gararen berri eman eta bisita turistikoak doan eskaintzeko.

## TURISMOA BULTZATZEN

Gorakada horren ildotik, Udala turismoa bultzatzeko

egiten ari den ahalegina aipatu zuten. Aurten, ia hamabost milioi gastatu dute zeregin horretan: beste gauza batzuen artean, gero eta egun gehiagoz egoten da zabalik turismo bulegoa, eta

bulegoa ezagutarazteko 50.000 foiletu turistiko argitaratu eta banatu dituzte Euskal Herriko 87 puntu turistikotan; baita Europako turismo feria garrantzitsuetan ere.

Ahalegin hori guztia, baina, ez da nahikoa promozio turistikoaren egiteko, udal ordezkarien esanetan; sektore pribatuak (jaketxe, gozotegi, dendak...) parte hartu behar duela aipatu zuten. Aurtengo abuztuko hiru astetan gozotegi bat eta bi jaketxe soilik egon dira zabalik. Hori horrela, Udalak egoera horri buelta emateko ezer gutxi egin dezakeela aipatu zuten, sektore pribatuak esku hartzen ez badu, behintzat.

# Igerilekuetako taberna lehiaketara

**Agorrosingo** udal igerilekuetako tabernaren ustiaketa lehiaketara aterako du Udalak. Dagoeneko onartu dituzte ustiaketarako baldintzak, eta gutxieneko kannon hilabeteko 50.000 pezeta izango da.

Horrez gain, hiru udaltzain lanpostu kaleratu ditu Udalak. Sarrera probetan parte hartzeko azaroaren 18ra arte egongo da irekita

izena emateko epea.

Proba horietan parte hartzeko, hainbat baldintza daude: hala nola, hogeita hamar urte baino gutxiago izatea eta euskarako bigarren hizkuntza eskakizuna edukitzea. Lanpostu berri horiekin, udaltzain baten erretiroa eta konbenioak dioen 35 orduko lan-jarduna lortzeko langileen ordu-tegiak egokituko dira.



Igerilekuetako taberna lehiaketara atera du Udalak.

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**DENA  
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

**Ion Murgizu**

Orotariko pintura

Iztukuak

Papereztatzeak

Imitazioak

Esozia etorbidea 24, 2. behea

**SORALUZE**

943 75 13 24 / 652 777 030

iiion@euskalnet.net

**ARANE  
KRISTALDEGIA**

Artekalea, 18-behea.

Tel. 943 76 74 09

670 483 903

# Berrigara

468 zenbakia.  
2001eko urriaren 11.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Mireia Larrañaga.  
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Peru Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Maitane Arizabaleta, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ortega.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.600 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenetan iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



## atrebentzia ezpada

### Elkarriren bake konferentzia hasi zan juan zan astian. Pentsatzen jatzu bakerako bidia zabalduko dabela?



**Josu Otaegi**

Oso zaila ikusten dot alderdixen arteko akordiuak lortzia. Hala be, ondo ikusten dot konferentzia hori egittia.



**Maritere De Pedro**

Nahiko nuke. Ez dakitt ezer lortuko dan, baiña ezebe egin barik, behintzet, ez dogu bakerik lortuko. Zerbait egin bihar da.



**Isabel Milikua**

Bakia lortzeko bidian, edozer gauza ondo etorriko jaku. Edozerrek lagunduko dosku bakia lortzen.



**Francisca Valero**

Ez daukat idearik be; ez dakit ezer lortuko dan konferentzia horretan, baiña espero dut baietz, zeozer lortzia.



**Jose Ignacio De la Hoz**

Nere ustez, oso bide ona da. Zeozer egin biharra dago, eta Elkarrirena bide bat da, eta gaur egunian, gaiñera, bide bakarra.



**Alberto Lazpiur**

Izan leike bide egoki bat; biharrezkua da, gaiñera, zeozer egittia.

## tira biraka gorka ortega & jon alvarez



adituen esanetan

## Gosariaren garrantzia

**B**esteak beste, elikagaiak (karbohidratoak, proteinak, lipidoak, eta abar), elikadura egoki baten ondorioak edota jakien etiketek eman beharreko informazioa aztertuko dugu Jardunek antolatu duen nutrizio ikastaroan.

Gure elikaduran gosaria izaten da jatordurik garrantzitsuen, eta ez diogu duen garrantzia ematen. Orohar, oso gutxi gosaltzeko ohitura daukagu, eta goizez ikasi edo lan egiteko beharrezkoa da ondo gosaltzea, kontuan izanik afaltzen dugunetik goizera arte ordu dezente barurik ematen ditugula. Egindako hainbat ikerketatan frogatu denez, ikasleen eta langileen errendimenduak behera egiten du ondo gosaltzen ez badute. Burmuinak beharrezkoa du glukemia maila (azukrea odolean) egokia mantentzea ondo lan egiteko, horrek emango baitigu behar dugun energia.

Askotan korrika eta presaka gosaltzen dugu, eta komeni da eseri eta astiz gosaltzea. Behar dugun energiaren %25 gosariak ematen digu.

Gosariaren %50 karbohidratoak (zerealak, gailetak, ogi integrala...) izan beharko lirateke, glukemia maila igotzeko. Gailetekin eta zerealekin kontuz ibili behar dugu, normalean azukre asko dutelako. Proteinek, berriz, %20 izan beharko lukete: esnea, jogurta, gazta edo arrautzak. Hestebeteak



MIREIA ALBERDI

Nutrizionista

«Gosari egokia hau izan daiteke: baso bat esne zerealekin, fruta ale bat edo zuku naturala eta tostada bat olibarekin»

hartzea ez da gomentatzen, eta esnea, jogurta eta gazta gaingabetuak badira, hobe. Azkenik, gosariaren gainerako %30 lipidoak izan behar dira: margarina (koipe sintetikoak) edo gurina (lipido aseak) hartu beharrean, onena oliba olioia izaten da, nahiz eta hemen, horretarako ohiturarik ez izan. Era berean, oso garrantzitsua da fruta aleak edo zuku naturalak hartzea.

Gosari egokia hau izan daiteke: baso bat esne zerealekin, fruta ale bat edo zuku naturala eta tostada bat oli-

ba olibarekin. Kafea estimulatuzailea izanik, esnearekin tanta batzuk hartzea nahikoa izan daiteke. Adinean aurrera goazela, esnearen orde ez esnekiak hartu ditzakegu gosaltzerakoan.



Goizean zerealak hartzea gomendatzen dute adituek.

bergarako zuhaitzak



Otsalizarrak, Ibargarain.

## Otsalizarra

*Sorbus aucuparia*

**A**ltueran 20 metro har dezakeen hosto erorkorreko zuhaitza. Azala leuna eta grisa da. Hostoek 5-8 foliolo edo hostoxka dituzte; inparipinatuak eta konposatuak dira. Loreak udaberrian ateratzen dira korinbo terminalak eratuz, eta petaloak zuriak eta usain txarrekoak dira. Fruituak ordea, iraila eta urria bitartean heltzen dira, eta azal gorri leuneko baia antzerakoak dira. Neguaren zati handi batean zuhaitzean mantentzen direnez, txorientzako elikagai garrantzitsua dira. Arrazoi horregatik, aspalditik txoriak ehizatzeke erabili izan dituzte, bere izen latinoak adierazten duen bezala (aucupor = txoriak harrapatzeke).

Otsalizarra erabilera asko dituen zuhaitza da. Alde batetik, bere egurra gogorra, elastikoa eta hauskaitza da, eta tornugintzan oso estimatua da, marruskadura handia jasan behar duten piezak egiteko. Bestetik, azalean eta hostoetan tanino ugari ditu, eta larrua ontzeko erabilia izan da. Fruituek ere, taninoak edukitzeaz gain, C bitamina ere badute, eta lehorgarriak ez ezik, eskorbutoaren kontrakoak ere badira; gainera, vodka eta marmeladak egiteko ere erabiltzen dira.

Otsalizarra, batik bat, lorategi (Irizar Jauregia) eta kale ibilbideetako (Ibargarai atzealdean, ibaiaren ondoan) zuhaitz apaingarri gisa landatzen da, bere lore eta fruituen edertasunagatik. Helburu honetarako aldaera ugari ateratu dituzte, besteak beste, 'Fastigata' eta 'Pendula'.

Testua: Maitane Arizabaleta.



VALEN MONUX

## 40 urtekoen jai berezia

Joan den zapatuan, urriaren 6an, **1961ean jaiotako**en kinto afaria egin zuten. Ez zen, baina, nolanhiko afaria izan. Aurten 40 urte beteko dituztela-eta, ospakizun berezia izan zuten. 75 lagun elkartu ziren. Afaloste-an, ez zuten aspertzeko astirik izan: **musika, stripteasea**... Kintadaren antolatzaileek honako oharra eman digute: batetik, kintadan erakutsi ziren argazkiak eta entzun zuten CDa eskuratzeko Nahikarin eman behar dela izena; bestetik, afarian ateratako argazkia nahi duenak Nahikarira edo Dixulara joan eta izena eman behar duela.


## Ibargarai osteko zubia dela eta

**Trenbidea** izandako **zubiko baranda oso baxua** dela eta, hainbat herritarrek kexua azaldu diote Bergarako Udalari. Barandak metro beteko altuera dauka, eta herritar horien esanetan, oso arriskutsu dago. Kontuan hartu behar da, gainera, ume asko ibiltzen dela inguru horretan jolasten, eta azpimarratu dute umeak errekarera erortzeko arriskua dagoela. Gauzak horrela, beharrezko neurriak har ditzala eskatu diote herritar horiek Bergarako Udalari.



### OHARRA BEZEROEI:

*Ramon Maria Liliko bulegoan arazo teknikoak ditugunez, aldi baterako bulegoa BELANBIDE KALEAN izango dugu. Ongi etorri, denok.*



*Gozogintzan aitzindari.*



**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK

#### AGENTEA

Telefonoak: 943 76 23 30  
eta 943 76 41 54  
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:  
9.00-14.00 eta 15.30-19.30



**IRAEGI**  
ASEGURUAK

**Hemeretzi urte dauzka, eta Elosuko Elurtxiki elkarteko jai batzordekoa da. Azken astiotan, hamar bat lagunek antolatzen jardun dute eguakitzean egingo dan Mendiko Ganadu Ferixa. Irakasle Ikasketetako Heziketa Bereziko bigarren urtea ikasten dabil, Eskoriatzan.**

**Elosuko Ferixako gauzarik onena?**

Girua.

**Eta txarrena?**

Eguraldixaren menpe egon bihar izatia.

**Ferixa, goizez ala arratsaldez?**

Goizez, jende gehixago ibiltzen dalako.

**Elosura asko juaten zara?**

Lehen, han egoten nitzan beti, baiña gero eta gutxiago noia.

**Parrandazalia zara?**

Nahikua.

**Bergarako jairik onena?**

San Martzial Eguna.

**Mendizalia zara?**

Ez, oso gutxitan juaten naiz mendira.

**Inguruko mendi bat?**

Urbixa eta Udalatx.

**Urtaro bat?**

Udazkena.

**Txikittan, ze izan nahi ziñuan?**

Irakaslia.

**Zergaitik elegidu dozu Heziketa**

**Berezixa?**

Beti gustau izan jatelako laguntzia.

**Ikasle ona zara?**

Normala.

**Denbora librian ze egittia gustatzen**

**jatzu?**

Lagunekin egon eta musikia entzun.

**Ikusi dozun azken kontzertua?**

Ken 7, Betagarri eta Asgarth taldeena domekan, Kilometroak jaixan, Beasainen.

**Zenbat kilometro egin ziñuan?**

## Irunne Igartua

Ez neban zirkuitu osua egin...

**Egunkarixan, ze irakurtzen dozu lehenengo?**

Bergarako karta.

**Afganistanekua jarraitzen zabit?**

Bai, asko botatzen dabelako.

**Irratixa ala telebisiñua?**

Telebisiñua.

**Programa bat/Aurkezle bat?**

*Sorginen laratza / Andoni Aizpuru.*

**Zenbat ordu egitten dozu lo?**

Sei-zazpi bat.

**Eta zerekin egitten dozu amets?**

Ez naiz ametsekin akordatzen.

**Zenbatian behin juaten zara**

**le-apaindegira?**

Hiru hillabetian behin-edo.

**Perfume bat?**

Gutxi erabiltzen dot; *Noa* gustatzen jat.

**Zenbat diru daukazu poltsikuan?**

3.000 pezeta-edo.

**Sukaldari ona zara?**

Ez.

**Janari eta edari bat?**

Entsalada eta ura.

**Etxeko lanetan laguntzen dozu?**

Batzuetan.

**Nora egingo ziñuke bidaia bat?**

Australiara.



# ARRI

**Industri  
hornidura**

Zubiaurre, 30  
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.  
Sakelakoa: 656 78 64 84.



## BANKINTER

**%3,5** etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

\*Irekiera  
komisioa:  
%1.  
35 urte  
bitarteraino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

## TOKI-ONA

**Bodegoia-taberna**

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



**Sukaldeak.  
Horma armairuak.  
Neurrira egindako  
altzariak.  
Ateak eta leihoak.  
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86



## GAZTELU

**BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

# Berrigara

BERGARA / ANTZUOLA / ELGETA

Bergaran,  
Antzuolan  
eta Elgetan.

Goibekokale

Kontuola

Berrigara

**Goienkaria**

Debagoieneko  
berri denak



**GOIENKARIA**  
**EDIZIO EKIN:**  
**DEBAGOIENEAN**

Prentsa idatzaren lehen aurrekariak erromatar garaikoak diren arren, prentsa modernoaren hastapenak XVII. mendean koka daitezke, *Nieuwe Tijdingen* egunkari belgikarra erregulartasunez argitaratzen hasi zenean.

Debagoiena aitzindari izan da Euskal Herrian herri prentsaren garapenean. 1988an, *Arrasate Press* sortu zen eta, harrezkero, beste bost aldizkari ere badaude eskualdean.

1999an, eskualdeko komunikabideen bateratzea hasi zen eta 2000n, *Goienkaria* jaio zen, eskualdeko aldizkaria.

Orain, urriaren 19an, egungo aldizkariak ediziotan batuko dira. Herri bakoitzak oraingo atal komuna eta bere edizioa jasoko ditu.

Arrasaten  
eta Aramaión.



Arexabaletan, Eskoriatzan  
eta Leintz Gatzagan.



# EZER EZ DA BERDIN IZANGO

**URRIAREN 19TIK AURRERA, BERRIGARA NEURRI HONETAN, ASTERO**



**Mirari**  
JANTZIDENDA

gizon eta emakumeendako arropa



JEALFER

*My time*

Martoko 34 Bergara  
943 76 23 93

DIANA  
GALLERY

MIGUEL DE LUNA®

Bergarako merkatariok, adi!

**Zuen iragarkia**  
**GOITBn agertzeko**  
**aukera paregabea!**

Spotak • Miniespotak • Teletestua • Gaininpresioak

Deitu 943 76 03 97  
telefonora!

**Goitb**  
Goiena Telebista





# BERRIGARA BERRIA

## Hilaren 19tik aurrera

Datorren egubakoitzean, BERRIGARA berria jasoko duzue. Berrituta etorriko zaigu, bai edukiari dagokionez baita formatuari dagokionez ere. *Goienkariaren* barruan joango da, formatu berean, Elgetako *Goibekokale* eta Antzuolako *Kontuola* aldizkariekin batera. Edukiei dagokienez ere, hainbat berritasun dakarkigu, ohikoez gain, gai berriak landuko ditu-eta. Hortaz, urriaren 19tik aurrera, ezer ez da berdin izango Bergaran.



**ARRASATEKO EDIZIOA**

Arrasate Press / Txiritola  
Arrasate / Aramaio  
24 orrialde + Goienkaria (24) = 48



**BERGARAKO EDIZIOA**

Berrigara / Kontuola / Goibekokale  
Bergara / Antzuola / Elgeta  
24 orrialde + Goienkaria (24) = 48



**ARETXABALETAKO EDIZIOA**

Aretxagazeta / Ze barri?  
Aretxabaleta / Eskoriatza eta Leintz Gatzaga  
12 orrialde + Goienkaria (24) = 36

**A**ldaketa nabarmena izango du BERRIGARAK. Formatuari dagokionez, orain arte Din-A4an inprimatzen zen; hemendik aurrera, berriz, Din-A3an jasoko duzue, *Goienkariaren* formatu berean. Deba-goieneko albisteak batzen dituen eta ibar osoan banatzen den *Goienkariaren* barruan, Bergarako, Elgetako eta Antzuolako astekariak jasoko dituzue. Hiru astekari horiek batzen dituen edizioak 24 orrialde izango ditu. Hori horrela, *Goienkariak* 24 orrialde izanik, eta edizioak izango dituen 24 orrialdeak gehituta, 48 orrialdeko aldizkaria jasoko duzue hemendik aurrera.

**BERGARAKO EDIZIOA**

Esan bezala, 24 orrialde izango ditu Bergarako edizioak; horietatik, *Kontuolak* eta *Goibekokalek* bina orrialde izango dituzte, eta gainerakoak, BERRIGARAK. Bergarako edizioan batuko diren hiru astekariak Irizar jauregian izango dute egoitza. Oxel Erostarbe izango da *Goibekokaleko* arduraduna, Aintzane Irizar *Kontuolako* eta Edu Mendibil BERRIGARAKO; edizioaren arduraduna ere Edu Mendibil bera izango da. Kazetarien lantaldea Monika Belastegik osatuko du.

Bergarako edizioaz gain, herrietako beste bi edizio izango ditu *Goienkariak*: Arrasatekoa eta Aretxabaletakoa, hain zuzen ere. Lehenengoan, Arrasateko eta Aramaio

teko eta Aramaio berriak jasoko dira, eta 24 orrialde izango ditu. Bigarrenetan, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagakoak jasoko dira, eta 12 orrialde izango ditu.

*Goienkariaren* hiru ordezkariak, Arrasatekoa, Bergarako eta Aretxabaletakoa, sarean izango dira, hau da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute.

**'BERRIGARA' BERRITUA**

Eskuetan daukazuen hau BERRIGARAREN 468. zenbakia da (datoren astekoa, berritua, 469.a izango da). Zer esan nahi du horrek? Hain justu, 468 astean helarazi dizuegula Bergarako aldizkaria zuen postontzietara. Edo, beste era batera esanda, urteak eta urteak darmatzagula zeregin horretan; zehatz esateko, ia 11 urte. 1990eko abenduaren 14an jaio zen BERRIGARA. Hasierako zenbakia ikusi baino ez duzue urte hauetan BERRIGARAK izan duen bilakaera antzemateko. Urteak ez dira alferrik joan, eta hainbat faktorek ahalbideratu digute astetik as-

tera produktu hobea egitea: gure bezeroek (dendari, tabernari, enpresa...), informatikaren eta, oro har, teknologiarren aurrerapenak, urteek ematen duten ezagutzak, eta abar. Orain, beste aldaketa bat etorriko da; agian, BERRIGARAK bizi izan duen eraldaketarik handiena izango da, bereziki, formatua aldatuko dugulako. Zergatik aldaketa hori?

Batez ere, prezioagatik: aurrerantzean, egunkari formatuan inprimatuko da, eta paperean, hau da, *Goienkaria* bezala. Horrela egiteak asko merkatzen ditu inprimatze kostuak. Horretan aurrezten duguna edukietan inbertituko dugu. Bestalde, aurrerantzean, *Goienkaria* eta BERRIGARA toki berean inprimatuko dira, formatu eta paper mota berekoak izango dira, eta batera helduko zaizkigu. Horrek esan nahi du herri-

ko albisteak eta ibar osoak batera etorriko zaizkigula, baina ondo berezitu. Hau da, hobeto integratuko dira bi edizioak: lokala eta denondako komuna.

**BERRIGARAK egunkari baten neurria izango du, diseinu berria, edukiz jantziagoa...**

**BERRIGARA, Goienkariaren barruan jasoko duzue datorren egubakoitzetik aurrera**

## Aldaketari buruzko iritziak

### MIGEL ANJEL ELKOROBEREZIBAR

#### *Berrigarako lehen zuzendaria*

Konpasarena egin du BERRIGARAK. Herrian sendo zulatu du berrien orratza, eta jira laburrak eginik hasieran, aurrera egin du zirkulu gero eta handiagoak marraztuz, eta hainbat alor landu eta irakurle gehiagorengana heldu da. Argi dago konpasa ez dela bere kabuz tente aritzen, elkarte, kazetari eta kolaboratzaileek mugitu behar baitute. Hurrengo zirkuluen erronka kudeaketa eraginkorrean datza.



### ANA IZTUETA

#### *Bedelkarreko presidentea*

BERRIGARA berria orain artekoa baino osoagoa izango dela iruditzen zait. Edukiari dagokionez, gainera, erakargarriagoa dirudi. Estetika aldetik, diseinu erakargarriagoa eta garbiagoa du, nire gusturako, eta horrek publizitatean eragina izango du.



### JULEN ALBERDI

#### *Bergarako Orfeiko presidentea*

Oso ondo ikusten dut BERRIGARAK izango duen aldaketa. Orain arteko sailei eutsiz gain, sail berriak gehitzea positiboa da, gustura hartzen dira horrelako berritasunak. Bestalde, *Goienkariaren* eginkizuna ere garrantzitsua da, inguruko herrietako informazioa edukitzea oso garrantzitsua da-eta.



### IÑAKI MADARIAGA

#### *Jarduneko ordezkaria Goienan*

Aurrerapauso garrantzitsua izango da aldaketa hau BERRIGARAREndako. Eduki aldetik, batez ere, asko irabaziko du. Gainera, Debagoieneko informazioarekin batera iritsiko zaigu BERRIGARA. Nik uste dut garbigailuek, giltzek eta praka bakeroek izan duten adinako arrakasta izango duela Goienaren egitasmo horrek ere Debagoienean. Bestalde, ea beste urrats bat egin eta laster Bergaran GOITB ikusteko aukera dugun.



### PRODUKTU HOBEA

Erronka da diseinuaren eta edukien aldetik gaur egungoa baino produktu hobea egitea. Horregatik, ahalegin berezia egingo dugu sail berriak zuenganatzen, albiste iturri berriak topatzen..., berba batean esanda, zerbitzu hobea eskaintzen. Bestalde, gogoan izan behar da Antzuolako eta Elgetako berriak ere jasoko dituzuela BERRIGARAN. Azken urteotan, hamabostean behin jaso duzue *Kontuola*. Hemendik aurrera, bai *Kontuola* baita *Goibekokale* (Elgetakoa) ere, astero. Nola edo hala, zerbitzu hobea eta informazio osatuagoa jasoko duzue BERRIGARAN. Orain arte bezala, Bergaran, Txantxan-gorri taldea arduratuko da banaketaz.

### ERREDAKZIO SISTEMA

BERRIGARA formatuz, itxuraz eta edukiz aldatzera goazela eta, berau idatzi eta egiteko modua ere aldatu egingo dugu. Informatika-programa bereziak erabiliko ditugu eta erredakzio sistema berria

estreinatuko dugu. Egiteko modu berri honek produktuaren kalitatea hobetuko du eta, horrez gain, Goienako aldizkari guztiak sarean, hau da, interneten jartzea ahalbideratuko du.

Bergaran ere astero jasotzen dituzte euren herrietako berriak. Beste herrietan, hamabostean behin edo hilero. Hortaz, urriaren 19tik aurrera aldizkari guztiak asteroko martxan jarriko ditugu.<

### HERRI PRENTSAN EREDU

Herri aldizkari gehien dituen eskualdea da Debagoiena, zazpi, hain justu, eta denak euskaraz idatziak: *Arrasate Press*, BERRIGARA, *Aretxagazeta*, *Kontuola* (Antzuola), *Kontzejupetik* (Oñati), *Ze barri?* (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) eta *Goibekokale* (Elgeta). Herrietakoez gain, ibar osoan banatzen den astekaria ere bada: *Goienkaria*, euskaraz idatzitako komunikabide batek inoiz izan duen zabalkunde-rik handiena duena (20.000 ale). Oñatiko *Kontzejupetik* izan ezik, gainerako guztiak Goienak kudeatzen ditu.

Baina herri guztietan ez dituzte maiztasun berearekin jasotzen herrietako berriak. *Goienkaria* da astero herri guztietan banatzen den aldizkari bakarra. Arrasaten eta

## Saskibaloiko gazteen taldeak Aloña-Mendiri irabazi zion

### Egubakoitzean, eguerdiz, Ordiziaren aurka jokatuko dute

Bergara KEko gazte mailako saskibaloiko taldeak Ordiziaren aurka jokatuko du egubakoitzean, hilak 12, Mariaren Lagundian, 12:00etan. Jokin Perezek eta Ramon Condek entrenatzen duten taldeak 49-46 emaitzarekin irabazi zion Aloña-Mendiri ligako lehenbiziko partiduan.

Begararrak bigarren mailako gazteen ligan ari dira aurten. Taldea osatzen duten jokalariek gehienek kadete mailan jokatzen zuten joan zen denboraldian, eta denboraldi bikaina egin zuten, lehen mailako kadeteekin jokatzeke igoera lortu baitzuten. Aurten, gazte mailan lehenbiziko urtea izatean, helburua sailkapenaren erdialdean geratzea izango da. Ramon Conde entrenatzailearen iritziz, «horrelako kategorietan urtebeteko aldea asko igaritzen da, eta teknikoki jokalariek onak diren arren, zaila izango dugu partiduak irabaztea. Hala ere, oso ondo entrenatzen ari dira, jokalariek ilusioz ikusten ditut eta konfiantza osoa dut beraien gain. Lehen partidua irabazi genuen astebukeraren, Aloña Mendiren aurka, eta ea egubakoitzean Ordiziari ere irabazten diogun».

#### TALDE TXIKIA

Jokin Perez (20 urte) eta Ramon Conde (33 urte) ditugu taldeko entrenatzaileak. Oraingoaz zazpi jokalariek bakarrik dituzte euren agin-



Gazte mailako saskibaloiko taldeko jokalariek eta Ramon Conde entrenatzailea astelehenerako entrenamenduan.

duetara. Ramonek esan digunez, «infantil mailako lau talde ditugu, hiru mutilenak eta bat neskena, baina gazte mailan arazoak izan ditugu taldea osatzeko. Hala ere, kadete taldeko hiru jokalariek gurekin entrenatu eta jokatuko dute plantila osatzeko. Era berean, saskibaloian jokatzeke interesa duten gaztetxoak gurekin entrenatzera etor daitezke, egubakoitzean Mariaren Lagundiko kantxara, 19:30ean».

Gazte taldea senior taldearekin batera entrenatuko da astelehenetan eta eguaztenetan Kiroldegian, eta egubakoitzean Mariaren Lagundian entrenatuko dira. Partiduak ere bertan jokatuko dituzte, domeka eguerdian. Ramo-

nen arabera, «Kiroldegian entrenatzeko ordu gutxi ditugu, eta nahiago dugu Mariaren Lagundian jokatzea, jendea partiduak ikustera joateko ere leku hobean dagoelako».

Astean bi egunez seniorrekin entrenatzea taldearen onerako izango dela uste du Condek: «jokalariek maila hobetzeko eta motibazioa handitzeko interesgarria da».

#### SENIORRAK ZAPATUAN

Bestalde, senior mailako taldeak lagunarteko partidua jokatuko du zapatuan Zumaiaren aurka, Labegaraie-tako Kiroldegian, 16:15etik aurrera. Seniorrak datorren astebukeraren hasiko dira ligan.

### BKEko saskibaloiko gazte taldea

#### ANTOLATZAILEAK

Iker Barrenetxea . . . 15 urte . . . 1,75 m.

Peru Azkarate . . . 15 urte . . . 1,80 m.

#### ESKOLTA

Jabi Fernandez . . . 16 urte . . . 1,72 m.

#### HEGALEKOA

Jon Beistegi . . . . . 16 urte . . . 1,83 m.

#### PIBOTAK

Iban Alonso . . . . . 16 urte . . . 1,90 m.

Aitor Ugarte . . . . . 16 urte . . . 1,83 m.

Ibai Etxeberria . . . 16 urte . . . 1,80 m.

#### Entrenatzaileak:

Ramon Conde eta Jokin Perez

# Iban Franco bergararra, Eibar B futbol taldeko golegilea

**Iban Franco** bergararra (23 urte) hirugarren denboraldia betetzen ari da Eibar B futbol taldean. Azken bi partiduetan bi gol egin ditu, Lleidan (3-1 galdu zuten eibartarrek) eta zapatuan, Mataró taldearen aurka. Unben jokaturako partiduan 0-1 galtzen ari zirela, Francok banakoa egin zuen 81. minutuan, area txikian Mugu-ruza bere taldekidearen erdiraketa bat buruz errematatzean. Jokalari bergararrak 2 eta lekoka ekar zezakeen gola ere egin zuen, baina epaileak baliorik gabe utzi zuen gola, Iban jokoz kanpo zegoelako.

## JOKALARI KLABEA

Mandiola Eibar B taldeko entrenatzailearen eskeman



Iban Franco, eskumaldean, Beasainen kontrako partiduan Ipuruan. DV

jokalari klabea da Iban. Joan zen denboraldian titularrak izan zen 30 partidutan, eta 5 gol sartu zituen. Aurtentzen armeroek sartu dituzten lau goletatik, Ibanek bi egin ditu. Normalean, erdilarien

eta aurrelarien arteko lotune gisa jokatzen du.

Eibartarrekin aritu zen lehenbiziko denboraldian hirugarren mailatik 2.B mailara igo zen Mandiolarren taldea. Aurtengo helburua

mailari eustea da. Ibanen hitzetan, «nekeza izango da, plantila erdia berria delako eta 2. B mailan maila handiko taldeak daudelako. Hala ere, joan zen denboraldian baino hobeto hasi gara, eta ea pixkanaka jokalariorik elkar akoplatzen garen».

Eibarren gustura dagoen arren, Ibanek faltan botatzen du harrobiarekiko interes handiagoa zuzendaritza teknikoaren partetik: «azpiko taldeak ez dituzte kon-tuan hartzen, eta Eibar B taldeko jokalariorik oso zaila daukagu lehen taldera igo-tzeko. Eurekin entrenatzeko ere ez gaituzte deitzen. Pro-gresatzeko aukerarik ez ba-daukat, taldez aldatzeko au-keraz aztertuko nuke denboraldia-aren amaieran».

## Igeriketa ikastaroa haurrentzat

**Udal Kirol Zerbitzuak** 3 eta 4 urteko haurrentzat igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Hastapen ikastaroak urriaren 22tik azaroaren 21era eta azaroaren 26tik urtarrilaren 21era izango dira; hobetze ikastaroak, berriz, urriaren 23tik azaroaren 27ra eta azaroaren 29tik urtarrilaren 20ra. Klaseak Agorrosingo igerilekuan emango dituzte, 17:45etik 18:30era. Izena ematea Udal Kirol Zerbitzuan egin daiteke. Interesatuak 943 77 91 67 telefono zenbakian jaso ditzakete argibideak.



## LONBIDE ONETAKOAK



Bidekurutzeta 5  
BERGARA

☎ 943 76 10 57



Kruz Gallastegi, 1. 943 76 54 69

# Bergarak bana berdindu zuen Ordiziaren aurka Agorrosinen

**Bergara KEko** preferente mailako futbol taldeak ez du oraindik etxean partidurik irabazi aurtengo denboraldian. Zapatuan mahoneroek bana berdindu zuten Ordiziaren aurka Agorrosinen. Juanina Garairen taldeak aukera ezin hobea galdu zuen hiru puntuak eskuratzeko. Bergararrak markagailuan aurreratu ziren lehen zatian, Jon Altzolak sartutako golari esker. Partidua amaitzear zegoela, 88. minutuan, ordiziarrek bana-koa egin zuten. Bergara sailkapeneko 12. tokian dago, 6 punturekin.



Arkaitz Aranek Berrigara-Otsein saria jaso zuen partidua atarian. ZAITEGI

Partidua atarian, Arkaitz Aranek BERRIGARA-Otsein saria jaso zuen, Edu Mendibil BERRIGARAKO zu-

zendariaren eskutik. Aranek plaka oroigarria eskuratu zuen iazko jokalaririk erregularrena izateagatik.

## Mendi irteera urriaren 21ean

**Gorla Alpinok** eta Pol-Pol Mendizale Taldeak hilaren 21ean Aralarra joateko irteera antolatu dute. Irteera 7:00etan egingo dute frontoitik. Txartelak Pol-Pol tabernan eskura daitezke.

## Behobia-Donostia lasterketa

**Behobia-Donostia** korrika lasterketa azaroaren 11n jokatuko da. Izena ematea (2.500 pezeta) Lazkano oinetako dendan egin daiteke, urriaren 15etik azaroaren 3ra bitartean.

### LABEGARAIETA FUTBITO TXAPELKETA

Astebukaerako partiduak

**EGUBAKOITZEAN (BARRUAN)**

10:30. Amilotx-Mongatxurrak	Errotagain
11:30. Patxaran Team-Errotagain	Amilotx
12:30. Torrekua-Kanpazar Harrobia	Patxaran Team
16:00. Bar Canalejas-Vacalouras	A Ze Flaxa
17:00. Bar Ganbara-A Ze Flaxa	Artusamak
18:00. Bildurbarek-Artusamak	Bayer
19:00. Bayer-Pagomendi	Bildurbarek

19:00. Artekale pizzeria-Irubide jatetxea ..... Etengabe

**DOMEKAN (BARRUAN)**

09:30. Bar Ugarte-Amilotx	Mongatxurrak
10:30. Mongatxurrak-Biciprecisión Igartua	Amilotx

**DOMEKAN (KANPOAN)**

11:30. Timofonica Team-Aluminios Kresala	Eri
12:30. Eri-Komando Piperrak	Aluminios Kresala

**ZAPATUAN (BARRUAN)**

18:00. Amoskibar-Etengabe	Artekale pizzeria
---------------------------	-------------------

### karteldegia

**FUTBOLA**

**Bergara-Urola**  
Infantilak  
Egubakoitza. 15:30. Ipintza  
**Bergara-Zumaia**  
Lehen mailako erregionala  
Egubakoitza. 16:30. Agorrosin  
**Bergara-Eibartarrak**  
Neskak  
Zapatua. 11:00. Ipintza  
**Bergara-Euskalduna**  
Ohorezko mailako gazteak  
Domeka. 11:30. Ipintza

**SASKIBALOA**

**Bergara-Ordizia**  
Gazte mutilak  
Egubakoitza. 12:00. Mariaren Lagundia  
**Bergara-Zumaia**  
Senior mutilak  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUJA  
KIROLAK**

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21      Zubillaga 10  
BERGARA      OÑATI  
943 76 20 49      943 78 24 13

**PANA DE ROKUA**  
**JATETXEA**

Asteburuetan bertako  
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

Afariak ematen ditugu

"Txanbolintxerokua"  
**BAP LA VNION**

Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

**etxalar**


kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
943 76 50 68

**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02




**ZINEMA ETXEAN**  
Teknologia aurrerakoiena zure esku

# Herran

## SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala


Matxiategi, 4  
943 76 37 53



## ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3  
943 76 12 22



# UGARTE

## A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Zuen  
zerbitzura

San Juan, 1 • BERGARA • Tel.: 943 76 54 91. Faxa: 943 76 08 04



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

## bonofotoa

Zein da 1977. urtean Elosun sortu zuten elkarte honen izena?

## galde debalde

1. Honako zein esanahirekin lotuko zenuke *zilbota* bergarar hitza?


- A- Pertsonen tripa handia
- B- Zilborra
- C- Sudur zabala

2. Goienkariaren Bergarako edizioak zenbat orrialde izango ditu?

- A- 24 orrialde
- B- 56 orrialde
- C- 18 orrialde

3. Zein taldetan jokatzen ari da Iban Franco futbolari bergararra?

- A- Eibar B
- B- Durango
- C- Beasain



**Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Elisa Azkaraterentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Elisari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Irizar etxea eta Ibargarai hiribidea** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

### BONOFOTOA

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**Cojonudos**  
zainzuriak, 13-16 ale  
**399 PTA!**  
(2,40 e.)

**Super BMn beti eskaintzarik onenak!**



## Erramun Martikorena baxenabartarrak kantu emanaldia egingo du zapatuan

**Zapatuan, hilaren 13an, Baigorritik Bergarara etorriko zaigu Erramun Martikorena abeslari aparta. Kantari baxenabartarrak kantaldia egingo du 19:30ean, osoko bilkuren aretoan. Abeslariaren doinurik ezagunenak entzun ahal izango dira. Martikorenarekin batera, Mixel Ducauk ere jardungo du.**

Ipar Euskal Herriko ahotsik esanguratsuenetakoa entzuteko aukera izango dugu zapatuan, hilaren 13an, osoko bilkuren aretoan. Erramun Martikorena kantari baigorriarrak emanaldia egingo du Mixel Ducau lagun duela. Emanaldia 19:30ean izango da, doan.

Ipar Euskal Herriko ahotsik esanguratsuenetakoa dela esan dugu; izan ere, entzuleari berehala eragiten dion ahots horietakoa dau-



Kanturako zaletasuna artzain lanbidearekin partekatu du azken 30 urteotan.

ka, indartsua eta, aldi berean, sentiberatasunez gainezka egiten duena, hunkigarria bezain naturala.

### ARTZAIN KANTARIA

Erramun Martikorena lanbidez artzaina bada ere, kanturako zaletasuna artzain lanbidearekin partekatu du azken hogeita hamar urte hauetan.

Abeslari gisa egindako ibilbide luze horretan, hainbat disko kaleratu ditu, zazpi, hain zuzen ere. Azkena aurten kaleratu du Elkarlanean argitaletxearekin. Honako hau da Erramun Martikorenaren diskografia: *Baigorriko artzain laboraria* (Elkarlanean 1978); *Otsobi* (Elkarlanean 1990); *Prima derari* (IZ 1992); *Olerkarien oibartzun, bilduma* (Elkarlanean 1993); *Herrian* (Agorila 1999) eta *Kantuz sortu naiz eta* (Elkarlanean 2001).

## Edu Muruamendiarazen 'Sutargi' lana pilotalekuan

**Aukeran,** Edu Muruamendiaraz dantzari bergararren dantza konpainia, gure artean izango dugu aurten ere Udal Pilotalekuan. San Joxepe erretiratuaren elkarteak antolatuta, *Sutargi* lana eskainiko du konpainiak hilaren 19an, egubakoitzean, 22:00etan, Udal Pilotalekuan.

*Sutargi* ohiko dantzaren eta musikaren ikuspegi garaiakidea da. Suaren inguruan dantzatutako akelarre batean hasiko da ikuskizuna, eta argia dantzatu arteko bilakaera izango du. Azken batean, *Sutargi* suaren disti-



Konpainiako kideak *Sutargi* lanaren une batean.


ratik izarren argirainoko bidea da.

1997. urtean sortu zene-tik hona, Aukeran konpai-

niak berritasunetarako go-goa erakutsi izan du, eta koreografiak egiteko garaian aurrelaria izan da. Oinarri

tradizionala hartu, eta hori dantza garaikideraino ekarri du orain arteko lau ikuskizunetan: *Aukeran*, *Akilimarro*, *Errenkan* eta *Zirgazezan*. *Sutargi* bosgarrena eta, era berean, orain arteko azkena da, osatuena dela esan daiteke, eta Estatu eta Europako hainbat herritan emanaldiak egingo dituzte Aukeran taldeko kideek.

Aukeran taldearen lan guztietan moduan, koreografia Edu Muruamendiarazena da. Eszena zuzendari lanak Garbi Losadak eta Jose Antonio Vitoriak egingo dituzte.



## Igeri elkartea, 1992-93 denboraldian

**B**ergara Igeri Elkartea hasi da dagoeneko 2001-02 denboraldia gertatzen. Aurten 40 bat lagun arituko dira maila ezberdinetan, Amaia Andueza entrenatzailearen aginduetara. Bergarako igerilariek maila ona erakutsi dute taldea sortu zenetik, eta igerilari asko eta asko igaro dira elkartetik. Goiko argazkia 1992-93 denboraldikoa duzue. Jesus Jauregi genuen orduan taldeko entrenatzailea eta, antza denez, emaitza

bikainak lortu zituzten bergarrek Gipuzkoa zein Euskadiko txapelketetan. Honako hauek dira argazkian agertzen diren igerilariak, ezkerretik eskumara:


**Goian:** Igor Garcia, Agurtzane Crespo, Eli Alberdi, Ainhoa Sanchez, Ainize Pagaldai, Kristina Irigoien, Mikel Igartua, Antxon Maiztegi, Iban Orgaz, Jon Mendizabal, Ainhoa Basauri eta Oihana Manso.

**Erdian:** Sonia Varela, Ana Gonzalez,

Itzal Gallastegi, Ainhoa Alberdi, Intza Arregi, Juan De Borja, Unai Mujika, Maider Igartua, Kepa Irizar, Andoitz Gallastegi, Asier Irazola, Jon Jauregi eta Iban Hernandez.

**Aurrean:** Eider Balzategi, Aitor Alberdi, Jabi De Borja, Nora Olabide, Gorka Gonzalez, Gema Ortiz, Iñigo Gallastegi, Jone Telleria, Unai Alberdi, Aritz Garcia eta Eneritz Muguruza.

*Argazkia: Bergara Igeri Elkartea*



**Manufacturas  
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.

Tf. / faxa 943 76 59 53.



**zumelaga**

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,  
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59


**IBARGYREN PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



GUREN  
INTURAK

**Pintatze lanak orokorrean**

Irala kalea z/g  
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

# SUBIJAI

Gazteentzako moda



Ikastolara!

- Kenzo Jungle
- Oilily
- Petit Boy
- Pampolina
- Quiksilver
- Timberland
- Elle Creation
- Liberto



943 76 42 41. Irala 1



## BERGARAKO BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA  
Ibargarai 3.  
Tel. 943 76 97 97

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
Tel. 943 73 05 25

**10 URTEKO ESPERIENTZIA!**



Zaindu zaitez.



grupo



**Amuebladora  
Mondragonesa**

a. eme. interiores  
a. eme. sukaldeak  
centro hogar mueble  
sofa leku

[www.grupo-aeme.com](http://www.grupo-aeme.com)

■ Tel.: 943 79 15 03  
■ Tel.: 943 77 14 92  
■ Tel.: 943 71 10 12  
■ Tel.: 943 77 14 92

[grupoam@grupo-aeme.com](mailto:grupoam@grupo-aeme.com)